

En Pamplona, a 23 de julio de dos mil veinte

REUNIDOS

De una parte, el Excmo. Sr. D. Unai Hualde Iglesias, Presidente del Parlamento de Navarra, y, de otra, el Sr. D. Andrés Urrutia Badiola, Presidente de Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca.

EXPONEN


PRIMERO.- El Parlamento de Navarra y Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca vienen colaborando con el objeto de llevar a cabo acciones y actividades concretas que redundan en un mutuo beneficio y contribuyen al logro de los fines que ambas instituciones tienen encomendados.


En este sentido, el veintiuno de enero de dos mil quince suscribieron un convenio de colaboración para llevar a cabo un trabajo de unificación del léxico parlamentario en el que también participaron el Parlamento Vasco, así como las Juntas Generales de Álava, Gipuzkoa y Bizkaia.

El catorce de marzo de dos mil dieciocho se formalizó un nuevo convenio con ocasión del Centenario de Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca. Dentro de este convenio, se incluyó un apartado relativo a la organización de una exposición itinerante de textos jurídicos en euskera.

SEGUNDO.- En el referido contexto de colaboración con Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca, se ha considerado oportuno participar activamente en celebración de una exposición itinerante de textos jurídicos

significativos en euskera que conserven el Parlamento de Navarra, el Parlamento Vasco, las Juntas Generales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, así como el Conseil Regional de la región de Nueva Aquitania.

TERCERO.- El Parlamento de Navarra y Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca, compartiendo el interés mutuo por la preparación de la referida exposición, así como por su voluntad de ponerla a disposición de la ciudadanía navarra, acuerdan suscribir este convenio de colaboración conforme a las siguientes


CLÁUSULAS


PRIMERA.- Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca, se compromete a:

- Seleccionar un listado de textos jurídicos en euskera que tengan una significación histórica, institucional o social, previa propuesta de un grupo técnico de trabajo, del que formarán parte las instituciones que colaboran en el presente proyecto.
- Preparar la exposición, lo que incluye todas las actividades de traslado, montaje y divulgación, procurando especialmente la accesibilidad de la población con necesidades especiales.
- Instalar en la sede del Parlamento de Navarra la exposición de los textos jurídicos en el año 2021.
- Incluir en el material gráfico e impreso que se utilice para la difusión de la exposición, los logotipos de las instituciones firmantes del presente Convenio, que aparecerán con idéntico tratamiento.

SEGUNDA.- El Parlamento de Navarra designará a uno de sus traductores como representante de la Cámara en el grupo de trabajo técnico que, bajo la coordinación de Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca, se ocupe de la selección de los textos jurídicos en euskera que tienen una significación desde un punto de vista histórico y/o de contenido (al efecto de condicionar la lengua o la vida de la ciudadanía, o por la relevancia institucional).

Los servicios de archivo y documentación del Parlamento de Navarra deberán facilitar al referido representante cuanta información precise relacionada con los documentos, textos, o legajos que la Cámara posea, así como su colaboración en la localización y en su caso, puesta a disposición, de cuanta documentación fuera requerida.

Serán por cuenta del Parlamento de Navarra los gastos derivados de la asistencia de su representante a las sesiones que celebre el mencionado grupo técnico.

**TERCERA.-** El Parlamento de Navarra se responsabilizará del acondicionamiento del espacio expositivo y de su seguridad, así como de la atención de los visitantes a la exposición.

CUARTA.- El Parlamento de Navarra subvencionará la exposición con una cantidad máxima de 5.000 euros (IVA incluido).

Una vez finalizadas todas las actividades relacionadas con la exposición, Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca elevará al Parlamento de Navarra la justificación de los gastos realizados, a la vista de los cuales se ingresará en la cuenta que esta Institución aporte a la Cámara, el importe


correspondiente a las actividades y servicios efectivamente realizados, hasta el límite máximo comprometido.

El Presidente del
Parlamento de Navarra



Unai Hualde Iglesias

El Presidente de Euskaltzaindia
Real Academia de la Lengua Vasca



Andrés Urrutia Badiola

Iruñean, 2020ko uztailaren 23an

BILDURIK


Batetik Unai Hualde Iglesias jauna, Nafarroako Parlamentuko lehendakaria, eta bestetik Andres Urrutia Badiola jauna, euskaltzainburua.

ADIERAZTEN DUTE


LEHENA.- Nafarroako Parlamentua eta Euskaltzaindia elkarlanean aritu izan dira urrats eta jarduera zehatzak egiten, bientzat onuragarri suertatzeaz gain lagungarri ere badirenak erakunde horietako bakoitzak bere ardurapean dituen helburuak erdiets ditzan.

Ildo horretan, bi mila eta hamabosteko urtarrilaren hogeita batean lankidetza-hitzarmen bat izenpetu zuten, lexiko parlamentarioa bateratzeko lanari ekiteko. Hitzarmen hartan Eusko Legebiltzarrak eta Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Batzar Nagusiek ere parte hartu zuten.

Bi mila eta hemezortziko martxoaren hamalauan beste hitzarmen bat sinatu zen, Euskaltzaindiaren mendeurrenaren karietara. Hitzarmen hartan atal bat txertatu zen, euskarazko testu juridikoen erakusketa ibiltari bat antolatzeari buruzkoa.

BIGARRENA.- Euskaltzaindiarekiko elkarlana jorratzeko asmo horren gerizpean, egokitzat jo da parte-hartzaile aktibo gisa aritzea euskarazko testu

juridiko esanguratsuen erakusketa ibiltari batean, non ikusgai jarriko diren Nafarroako Parlamentuak, Eusko Jaurlaritzak, Arabko, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek eta Akitania Berriko Eskualdeko Conseil Regional delakoak gordetzen dituzten testuak.

HIRUGARRENA.- Nafarroako Parlamentuak eta Euskaltzaindiak, biek ala biek interesa dutenez aipatu erakusketa prestatzeko eta hori nafar herritarren eskura jartzeko, lankidetza-hitzarmen hau sinatzea adosten dute, honako klausula hauen araberakoa:

KLAUSULAK

LEHENA.- Euskaltzaindiak honakoetarako konpromisoa hartzen du:

- Esanahi historiko, instituzional edo soziala duten euskarazko testu juridikoen multzo bat hautatzeko, lantalde tekniko batek proposamena egin ondoren. Lantalde horrek kide izanen ditu proiektu honetan elkarlanean diharduten erakundeak.
- Erakusketa antolatzeko, garraio-, muntaketa- eta dibulgazio-jarduera guztiak barne, eta azpimarra berezia jarrita premia bereziak dituzten herritarrei irisgarritasuna ahalbidetzen.
- Testu juridikoen erakusketa Nafarroako Parlamentuaren egoitzan 2021. urtean paratzeko.
- Erakusketaren berri emateko erabiltzen den material grafiko eta inprimatuan hitzarmen honen sinatzaile diren erakundeen logotipoak agerrazteko, modu berean tratatuak.

BIGARRENA.- Nafarroako Parlamentuak bere itzultzaleetako bat lantalde teknikorako ordezkari izendatuko du, zeina Euskaltzaindiaren koordinaziopean jardunen baita historiaren eta/edo edukiaren ikuspegitik hizkuntza nahiz herritarren bizitza baldintzatzeagatik edo garrantzi instituzionalagatik muntakoak diren euskarazko testu juridikoen hautaketan.


Nafarroako Parlamentuko artxibo eta dokumentazio zerbitzuek ordezkari horri beharrezkoa duen informazio guztia eman beharko diote, Legebiltzarra ditzan dokumentu, testu edo paper-sortei dagokienez, eta hari beharrezkoa den dokumentazio guztia aurkitzen lagunduko diote eta, kasua bada, eskueran ipintzen.


Nafarroako Parlamentuaren konturakoak izanen dira bere ordezkaria aipatu lantalde teknikoak egiten dituen bileretara joatearen ondoriozko gastuak.

HIRUGARRENA.- Nafarroako Parlamentua arduratuko da erakustaretoa apailatzeaz eta bertako segurtasunaz, bai eta erakusketara doazen bisitariak artatzeaz ere.

LAUGARRENA.- Nafarroako Parlamentuak diruz lagunduko du erakusketa, 5.000 euroko gehieneko kopuruarekin (BEZA barne).

Erakusketarekin zerikusia duten jarduera guztiak bukatutakoan, Euskaltzaindiak Nafarroako Parlamentuari igorriko dio egindako gastuen justifikazioa. Parlamentuak, horiek ikusirik, Euskaltzaindiak zehazten dion

kontuan ordainduko dio egiazki eginiko jarduerei eta zerbitzuei dagokien zenbatekoa, hitzarturiko gehieneko mugaino bitarte.

Nafarroako Parlamentuko
lehendakaria

A blue ink signature consisting of several loops and a straight line.

Unai Hualde Iglesias

Euskaltzainburua

A blue ink signature consisting of several loops and a straight line.

Andrés Urrutia Badiola